



## **ARESOKO UDALA**

31876 (Nafarroa)

## **ARESOKO UDALBATZAREN OHIKO BILKURA**

Areson, 2016ko irailaren 12an, eguerdiko 12:00etan eta Aresoko udal aretoan, ohiko Udaleko plenoa biltzen da, aurretik Ur Alguero Chivitek Alkate Jaunak deituta, eta ondoren adierazten diren zinegotziak bertaratuak izan direlarik ohiko bilkura burutzeko.

**Organua :** Batzarra

**Deialdia:** lehenengoa

**Eguna:** 2016/09/12

**Ordua:** 12:00

**Lekua:** Udalaren Batzar Aretoa

### **BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK**

M<sup>a</sup> Asunción Arratibel Onsalo  
Jon Gurrutxaga Etxeberria  
Xabier Domingo Zubillaga Uranga  
Eden Alguero Chivite  
Ur Alguero Chivite  
Javi Belaunzaran Mariezcurrena  
Mikel Baraibar Garmendia

### **BERTARATU EZ DIRENAK**

### **IDAZKARIA**

Ione Miren Lazkoz Maiza

### **GAI ORDENA:**

- 1.- Aurreko aktaren onespina.
- 2.-2016/2017 urterako uso paraden oinarrien onespina.
- 3.-Aresoko hirigintza arauen 85 eta 89. artikuluen aldaketaren hasierako onespina eta 88bis artikulua berriaren hasierako onespina.
- 4.-Hirigintza Planaren Hitzarmenaren onespina.
- 5.- Alkate Ebazpenen berrespena.
- 6.- Eskaera eta galderak.
- 7.- Denetarik

## **Esan-eginak eta erabakiak**

Alkate orde andereak bilera hasi eta berau publikoa izendatua, eguerdiko 12:00 direnean, Udal Idazkariak frogaturik sesioa hasia izateko, beharrezkoa den bertaratutako quoruma nahikoa dela, gai zerrendan jasoak dauden puntuak ezagutzeari ekiten zaio.

### **1.-Aurreko batzarreko aktaren onespena.**

Aurreko batzarreko aktaren laburpena egiten du alkateak eta bertaratutako zinegotzi guztien adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

1.1.- 2016ko uztaialaren 15ko ohiko batzarreko akta onartzea.

### **2.- 2016/2017 urterako uso paraden oinarrien onespena.**

Aresoko Alkateak, Ur Alguerok, 2016/2017 Ehiza denboraldirako indarrean egonen diren uso postuen enkanteko baldintzak irakurtzen ditu eta adierazi ere baldintzetako 15. puntuan aldaketa batzu barneratu direla iazko baldintzekin alderatuta.

Jarraian erantsita doan baldintza plegua irakurri eta aztertuta,

*‘Ehiza-jarduera eta Areso-Arribe-Atallu NA 10.562 barruti publikoan enkantean aterako diren uso-paraden banaketa (2016-2017 denboraldia)*

*1.- Areso-Arribe-Atallu NA 10.562 barruti publikoan dauden uso-paradak, Aresoko udalerriri dagokion zatian, bi ingurutan banatuta daude: lehendabiziko 27 paradak Urteaga parajea daude, eta 2016-2017 denboraldirako enkante bidez esleituko dira, aurrerago azalduko diren lizitazio-ereduen arabera. Peña, Perratokieta, Goiegi, Uniate, Museo eta Gañarben kokatuta dauden ehiza-paradak, 1 zenbakitik 36 zenbakirainokoak, Aresoko ehiztari guztiak biltzen dituen USOA Ehiztarien Elkarteari esleituko zaizkie zuzenean.*

*2.- USOA Ehiztarien Elkarteak bere gain hartzen du parada horien banaketa. Horretaz gain, parada horiek antolatzeaz eta behar bezala ordenatzeaz arduratuko da, eta baita bertan eta inguruan eginen den ehizaz ere.*

*3.- USOA Ehiztarien Elkarteak, era berean, egokitzeko lan guztiak egiteko konpromisoa hartzen du; bere ingurukoak, eta baita enkantean aterako diren altuerako uso paradena ere, hau da, 21-22-23-24 zenbakia duten paradena. Horretaz gain, oboltxoak berriaz jartzeko ardura izanen du.*

*4.- Udalak jasoko duen kopurua honakoa izanen da: enkanteko erremateen batura, gebi USOA Ehiztarien Elkarteak ordaintzen duen kanona.*





## ARESOKO UDALA

31876 (Nafarroa)

2.- Urteagako paradak urtebetez alokatuko dira, esleipena egiten den egunetik kontatzen hasita.

6.- Barrutiaren Plan Zinegetikoak espresuki ezarritako uso-paradez gainera, ezin izanen da beste paradarik ezarri.

7.- Edozein kontzeptu dela-eta usoa ebizatzeko baimena dutenek, soil-soilik paradetan egin abal izanen dute ebizua.

8.- Behin-behineko esleipenean errematatzaileak Udalarari FIDANTZA ordainduko dio. Fidantza, hain zuzen ere, behin-behineko esleipenaren zenbatekoaren EHUNEKO HAMARRA izanen da.

9.- Esleipendun guztiek, esleipenaren prezioaz gainera, esleipen horrek sortuko dituen zerga eta gastu guztiak ordainduko dituzte.

10.- Boz gorako enkantea egingen da, parada independenteen arabera, eta gehikada-tantoak HAMAR eurokoak izanen dira.

11.- Esleipendunen batek Baldintza Plegu honetan ezarritako betebeharrak beteko ez balitu, esleipena galduko luke.

12.- Paradak 1etik 27raino zenbakituta daude eta URTEAGA parajeen kokatuta daude. Paraden enkanteagatiko lizitazio-prezioa ondorengoa da:

12.1.-2.,3. eta 4., paraden lizitazio-prezioa SEIEHUN (600) euroko da.

12.2.-1.,5., 21.,22., eta 23. paraden lizitazio-prezioa HIRUREHUN (300) eurokoa da.

12.3.-Gainontzeko paraden lizitazio-prezioa EHUN ETA BERROGEHITA HAMAR (150) eurokoa da.

13.- Enkantea Aresoko Udalaren Udal Bulegoetan egingen da, 2016ko irailaren 17an, larunbata, arratsaldeko 7etan.

14.- Esleitu gabe gelditutako parada guztietarako, eta legezko epearen barruan dagokion hobekuntza lortu dutenentarako, bigarren enkantea egingen da. Bigarren enkante hori behin betikoa izanen da, eta 2016ko irailaren 24ean egingen da, larunbata, arratsaldeko 7etan.

15.- Behin betiko esleipena egin ondoren, Udalak dagokien esleipen-txartela emanen die esleipendunei. Horretarako, aldez aurretik honakoak ordaindu beharko dituzte:

\* Behin betiko errematearen zenbatekoa

\* Baldintza Plegu honen 9. atalak aipatzen dituen gastuak: % 21a, hain zuzen ere BEZari dagokiona.

\* Gehi parada guztietarako, Udalak uso postuak konpondu eta mantenduak izateko, 50 euroko ordainketa egin beharko da.

\* Postu bakoitzeko 50€ko fidantza jarri beharko da postua garbia eta egoera onean mantendu dadin; 2016ko abenduaren 31rako postua garbia egon behar du eta baita egoera onean ere, hala bada, fidantza itzulua izanen da eta horrela ez izatekotan, udala fidantzarekin geratuko da. Beti ere fidantza ez da itzulua izanen urtarrila amaiera arte.

16.- Esleipenduna izan gabe eta titularraren berariazko baimenik gabe enkantean banatutako paradaren batean ebizian ari den oro salatua eta zigortua izanen da, ebizaren inguruan indarrean dagoen legediaren arabera.

17.- Enkantean banatutako paraden esleipendunek, denboraldia bukatzen denerako, paradak eta paraden ingurua abalik eta garbien utzi beharko dituzte: kartutxoak, hondakinak, zaborra...

18.- Baldintza Plegu honetan aurreikusita ez dagoen guztia, honakoen arabera arautuko da: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea; Basa fauna eta baren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko 2/1993 Foru Legea; 17/2005 Foru Legea, abenduaren 22koa, Nafarroako ebizari eta arrantzari buruzkoa; eta gai bonen inguruan indarrean dauden bestelako xedapenak.”

Bertaratutako denen adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

2.1.- 2016/2017 urterako uso paraden oinarriak onartzea.

2.2.- Enkantearen berri ematen duen iragarkia Berria eta Diario Vasco egunkarietan iragartzea, baita Aresoko web orrian ere.

### **3.- Aresoko hirigintza arauen 85 eta 89. artikuluen aldaketaren hasierako onespena eta 88bis artikulua berriaren hasierako onespena.**

Aresoko alkateak azaltzen du Aresoko hirigintza arauen 85 eta 89. artikuluen aldaketen nondik norakoak, fatxada eta tximiniei dagokienez; eta 88bis artikulua berria sortzeko beharraz, eraikin osagarriei dagokienez.

Artikulu horien arautegi berria irakurri eta aztertuta, bertaratutako denen adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

3.1.- Aresoko hirigintza arauen 85 eta 89. artikuluen aldaketa eta 88bis artikulua berriaren sorrera hasiera batean onartzea.

3.2.- Argitara eman Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 74. eta 79. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Espedientea jende aurrean egonen da hilabetez, interesdunek azter dezaten eta erreklamazio, kexa edo oharrak aurkez ditzaten.

### **4.- Hirigintza Planaren Hitzarmenaren onespena.**

Aresoko alkateak adierazten du 2016ko urtarrilaren 20ko udal batzarrean hirigintzako udal plana garatu eta berria egiteko espediente irekiaeraren akordioa hartu zutela.

Honen baitan Landa Garapen, Ingurugiro eta Toki Administrazioako Departamentua eta Aresoko Udalaren artean lankidetzaren hitzarmen bat sinatu beharra dago.

Hitzarmen honen barruan jarraipen batzorde bat dago eta honetan udal ordezkariak Asun Arratibel, Mikel Baraibar, Xabier Domingo Zubillaga, Eden Alguero eta Ur Alguero dira.

Eta Departamentuko ordezkariak aldiz, Rafael Araujo Guardomino eta Ainhoa Irizar Lizarazu dira.

Behin jarraipen batzordea izendatuta eta bi aldeak ados egonda, aho batez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:





## ARESOKO UDALA

31876 (Nafarroa)

- 4.1.- Aresoko Hirigintza Plana berritzeko Landa Garapen, Inguru Giro eta Toki Administrazio Departamentuarekin sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmena onartzea.
- 4.2.- Ur Alguero Chivite, Aresoko Alkatea, hitzarmen hau sinatzeko ahalordetzea.

### 5.-Alkate Ebazpenen berrespena.

Alkateak azken boladan emandako ebazpenen berri ematen du eta zinegotzi guztien adostasunez, Aresoko udal batzak ERABAKI DU:

- 4.1. -35/2016-42/2016 Alkate Ebazpenak berrestea.

### 5-Eskaera eta galderak.

### 6.- Denetarik.

Aztertu beharrekoa aztertuta, 13:45 orduak izanda, Udal bilkurari bukaera ematen zaio eta hemen nire aurrean dauden jaun-andereek, nirekin, Idazkariarekin Akta sinatu dute. Ziurtatu egiten dut.

